

TEKNOLOGIA ETA GIZA IDENTITATEA: TRANSHUMANISMOAREN BILAKAERA XXI. MENDEAN

Jon Martinez De Ilarduya Álvarez, Xabat Laiglesia Goena, Aimar Zuriarrain Asurmendi

AURKIBIDEA

GAIA:	3
LABURPENA:	4
ABSTRACT:	4
HIPOTESIA:	4
MARKO TEORIKOA	4
- TRANSHUMANISMOA	4
- ALDAKETA BERRIEKIKO GAITZESPENA	6
HAUSNARKETA:	6
METODOLOGIA:	7
ONDORIOAK	10
BIBLIOGRAFIA:	10
ERANSKINAK	12
	12

GAIA:

Teknologiak gizakiengan efektu handia izan du, hainbesteraio ezen gizakiak ezin baikara bizi teknologiarik gabe. Horregatik batzuk esaten dute garai berria hasi dela, homo sapiens sapiensaren garaia alde batera utziko dela, "transhumanismoaren" agerpenarekin.

LABURPENA:

Transhumanismoa, garai hontako pentsatzeko modu filosofiko bat da, materialismoan oinarritzen dena. Esaten dute transhumanismoak, gizagabetasunera eramango digula, beste batzuk aldiz, bakarrik teknologiarekin bizitzen ikasi dugula pentsatzen dute. Baina argi dago etorkizunean transhumanismoa gure bizitza arruntean eragina izango duela. Urretxuko-Zumarraga ikastolako ikasleen ikuspuntuak jasoz, transhumanismoa etorkizunean onartuta izateko aukerarik dauden jakingo dugu.

ABSTRACT:

Transhumanism is a philosophical way of thinking of this time, based on materialism. They say that transhumanism will lead to inhumanity, others think that we have only learned to live with technology. But it is clear that in the future transhumanism will influence our ordinary lives. Collecting the views of the students of the Ikastola Urretxu-Zumarraga we will know if transhumanism can be accepted in the future.

HIPOTESIA:

Gure ustez, Urretxu Zumarraga Ikastolako DBH 3-tik Batxi 2-rainoko ikasleek transhumanismoaren ikuspuntuaren aurka egongo dira, aldaketa eta teknologia berrien garapena gutxietsiz. Iritzi hau gizakiak berrikuntzeidien gaitzespenegatik gertatuko dela uste dugu.

MARKO TEORIKOA

TRANSHUMANISMOA

Transhumanismo terminoak, esaten du, giza espezieak, hala nahi badu, bere burua gaintzeko gai dela. Transhumanismoa garai honetako pentsatzeko modu bat da, etorkizunari buruzko ikuspegi bat, eta honek hobekuntza zientifiko-teknologikoen bidez gizateriaren muga naturalak gaintzea proposatzen du. Gure espeziarengan, transhumanismoak, hobekuntza onuragarriak izango dituela esaten da, honek gure gizartea eboluzionatuko duela esanez.

Egia esanda ez da orain esaten den zerbait, ideia hau urteak daramatza transhumanisten artean. "Homo deus" liburuan, Yuval Noah Hararik idatzia, transhumanismoaren ideia zabaldu zuen. Idazleak, Homo Sapiensen bilakaeraz hitz egiten du liburuan, eta gizakiek inmortalitatea irabazi nahi dutela adierazten du .

Liburuan gizakiek *jainko* izatera eboluzionatuko dutela esaten da, hain zuzen ere, hori da liburuaren izenburuaren gakoa "Homo Deus". Baita ere adierazten du etorkizuen gizakiok kontrola galduko dugula, sortuko dugun gen suntsitzaileraren ondorioz.

Gizakiaren eboluzioak, makinarekiko antzekotasun bat sortzera eramaten gaitu. "Gizaki batzuk jada, burmuinaren eta ordenagailuen arteko interfasea lortzen ari dira, mikrotxipak barneratuta eta protesidak dituztelako" (Velazquez, 2009) . Horregatik pentsatzen du gizakiok makinetara eboluzionatuko dugula, baina transhumanistek ez dute hori helburu bezala hartzen, gure espeziearen eboluzio faseak kontrolatzea baizik dute helburu bezala.

Batzuk esaten dute, gure espeziearen bukaera izan daitekeela, baina besteek ordea, beste aro baten hasiera izango dela esaten dute, gure burua gaintzen bukatuz.

Baita ere informazio mentalaren "segurtasun-kopia" bat egitearen ideari buruz hitz egiten dute. Transhumanistek, garun biologiko edo robotiko batean kargatu nahi dute informazio mental guztia.

Honi buruz, galdera asko ateratzen dira. Hauen artean adibidez: “Nahiz eta informazioa gorputz batean ez egon, gure konzientzia esistitzen jarraituko luke, beste garun robotiko moduko batean? “, jendeak pentsaten duelako gure konzientzia galduko genukela. Materialismo terminoari begiraturaz, argi gelditzen da gorputzarik gabe konzientzia galtzen dela.

ALDAKETA BERRIEKIKO GAITZESPENA

Transhumanismoa gure etorkizunean egongo dela argi dago, baina onartuta egotea beste kontu bat da. Gizakiok beti izan dugu beldurra gauza berriei, aldaketak zailak egiten zaizkigulako. Etengabe garatzen ari gara, baina halako aldaketa zorrotz baten aurrean gizakiok atzera botatzen gara.

Nahiz eta batzuk hau onartu gehienek pentsatzen dute gure espeziearen suntsipenera eramango gaituela. “Gizakitik urruntzen gaitu” (Dykinson,2020) , hau gizaki gehienek beldur nagusia da, ez daudelako prest honetarako.

Transhumanistek “paraíso terrenal” berri baten bila daude, eta hau lortzeko gauza asko atzean utzi beharko dira, eta horregatik jendeak ez du onartzen, jada eraikitakoa galtzeko prest ez daudelako. Egia da, modu jakin batean eboluzionatzen joango ginatekeela, baina beti dago beldur hori.

Gainera, esaten da, aldaketa hau ez dela egongo denen eskura, aldaketa hau egiteko aukera, klase sozial altuetan daudenei bakarrik iritsiko zaiela esaten da. Eta horregatik saihestu nahi dute jendea makina teknologiko bihurtzea. Kontuan hartuta lehen munduan eta hirugarren munduan dauden desberdintasunak, hau aurrera eramatea gehiago ekarriko lituzke.

Aldaketak, gure historian zehar asko egon dira, baina gaur egun, lehen aldiz, prozesu ebolutiboan esku-hartze zuzena egitea proposatzen da. Eta jendeari atzera botatzen dio gure espeziea desagertzea ekar dezakeelako.

HAUSNARKETA:

Transhumanismoaren gaia hartzea erabaki dugu, momentuko gai bat delako. Transhumanismoa pentsamendu filosofiko berri bat da, eta mugimendu intelektual bateri doa lotuta. Horrela pentsatzen duen jendea, hau da, transhumanismoan sinisten dutenak, esaten dute teknologia berriekin gizateriaren mugak gaindituko direla, gure adimenak giza gorputzetik bereiztuta bukatuko duelako. Transhumanismoaren helburua, gizakion gaitasun fisikoak, psikoak eta intelektualak gainditzea da, horrela, gizakia izango ez den zerbaitetan bihurtuz.

Guk, transhumanismoaren idearen puntu batzuekin, iritzi berdina partekatzen dugu, uste dugu iragan batean, dena teknologiaren bidez egingo dela, eta urteen poderioz, teknologiak gure bizitza aldatuko duela modu erradikal batean, baina aldaketa handiak egon arren, gizakiok modu batean berdin jarraituko dugula pentsatzen dut, hau da ez gara robotak bihurtuko. Uste dugu, bakarrik haiekin bizitza partekatuko dugula.

Egia da, gaitasunaren mugak gainditzeko aukera handia edukiko dugula gizakiok, teknologia gizakia eraldatzeko gai delako. Baina ez dugu uste hainbesterako izango denik. Aldiz bai pentsa dezakegu, modu batean, gizakiok teknologiaz ordezkaturik izango garela lanetan...., baina beti egongo da gizaki bat haien menpe, hau da, ez dira inoiz gure menpe egongo.

Ondoriotzat esan dezakegu, transhumanismoan sinistea normalena dela, realistik bagara, eta teknologiaren eboluzioa ikusten jartzen bagara, ikus daiteke nola urteak pasaz, berriztagarriagoak diren. Orduan zergatik ez dira izango iraganean gure gaitasunak gainditzeko eta mugak gainditzeko gai. Gure ustez, esaten dutena, modu batera iraganean isladatuko da.

METODOLOGIA:

Guk Transhumanismoa etorkizunean onartuta egongo den jakiteko, inkesta bat egin diegu Urretxu- Zumarraga Ikastolako ikasleei beraien iritzia jakiteko, eta horrela, beraien iritziekin ondorio batera iritsiko gara.

Lehenengo egin duguna datu sozioekonomikoak jakiteko galderak izan dira, egia gure inkesta gazteentzat dela baina urte desberdinetako iritzia desberdinak izan daitezke, eta jakin nahi dugu ea iritzia adinarekin zerikusia duen. Galdera hauek erantzuteko derrigorrezkoak dira.

Bigarren galdera orokor bat izan da. Honekin jakin nahi dugu, ea gazteek, transhumanismoari buruz zerbait dakiten.

Gero galdera itxiagoekin hasi gara, pentsatu dugu gehienek ez dakitela transhumanismoari buruz, horregatik galderak denon eskurakoak jarri ditugu.

Beraien iritzia jakiteko, Likert Eskala bat egin diegu, hontan transhumanisten ideiak jarri dizkiegu eta ados dauden edo ez jartzeko aukerak jarri dizkiegu. Hauek ziren aukerak:

- GUZTIZ ADOS
- NAHIKO ADOS
- EZ DAKIT
- NAHIKO KONTRA
- GUZTIZ KONTRA

Galdera hauek erantzuten dijoazen einan, beraien iritzia uzteko leku bat utzi diegu.

Gero haiek zerbait ikas dezaten transhumanismoaren buruzko testu bat jarri diegu, eta hau irakurri ondoren lehen zuten iritzia ea aldatu den galdetu dugu.

Galdera guztietan iritzia emateko aukera dute baina aukerarentzat uzten dugu, beste denak derrigorrezkoak dira erantzuteko.

NOLA EGINGO DUGUN (PROZEDURA):

Lehenik eta behin gure eskolako, ahal izan dugun jende geienari bidaldu diegu, batzuei gmail batez bidaldu diegu eta beste batzuei link baten bidez. DBH eta BATXI


egiten ari direnei bidaldu diegu, guk gazteen arteko iritziak jaso nahi ditugulako.

ONDORIOAK

Inkesta bidali ondoren , 18 erantzun jaso ditugu eta atera diren erantzunekin ondorio hauek iritsi gara:

Lehenik Transhumanismoari buruzko zerbait entzun duten galdet diegu, eta %44,44ak ezetz erantzun du. Eta honi buruz zerbait entzun dutela erantzun dutenen artean ikusi dugu emakume eta gizonen kopurua berdina izan dela, honekin esan nahi dugu sexua ez duela zerikusirik.


Transhumanismoa zer den dakitena



Adina kontuan hartuta, erantzun hauek atera dira, eta ikus daiteke adinak ezta ez duela zerikusirik.


13-14 urtekoak:

ENTZUN AL DUZU INOIZ TRANSHUMANISMOARI BURUZ?





16-19 urtekoak:

Entzun al duzu inoiz transhumanismoari buruz?



Transhumanistek aurrera eraman nahi dituzten ideiein aurrean, alde edo kontra dauden erantzun ondoren, textu bat jarri diegu transhumanismoari buruz, honi buruz jendeak gehiago ikas dezaten, hau irakurri ondoren, transhumanisten ideien aurren zuten iritza aldatu duten galdetu diegu eta %65 baietz erantzun du. Iritzia aldatu dutenen artean, gehienek, ideiak aurrera eramaterarekin ados zeuden.

IRITZIA ALDATU DUTENAK IDEIEN AURREAN:



Honekin ondorioztatzen da, nahiz eta hasiera batean batzuk transhumanismoarekin alde egon, ondorio txarrak atera eta gero, gehienak kontra jarriko direla. Hau gure hipotesiarekin bat dator.

BIBLIOGRAFIA:

1. Asís Roig, R. D., & Laukyte, M. (2020). Transhumanismo inclusivo. *Transhumanismo inclusivo*, 93-114. https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as_sdt=0%2C5&q=+transhumanismo++mal&btnG=#~:text=Guardar%20Citar-,Transhumanismo%20inclusivo,-R%20As%C3%ADs%20Roig
2. Cárcar Benito, J. E. (2019). El transhumanismo y los implantes cerebrales basados en las tecnologías de la inteligencia artificial: sus perímetros neuroéticos y jurídicos. *Ius et scientia*, 5 (1), 157-189. Berreskuratua: <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/88593/sexta.pdf?sequence=1>
3. Fernández, H. V. (2009). Transhumanismo, libertad e identidad humana. *Thémata. Revista de Filosofía*, (41). Berreskuratua: <https://revistascientificas.us.es/index.php/themata/article/download/594/557>
4. Gómez, J. A. V. (2019). Transformaciones humanas a través de la tecnología. Un aporte al Estudio Histórico del Transhumanismo. *Revista Logos, Ciencia & Tecnología*, 11(1), 138. Berreskuratua: https://scholar.archive.org/work/hbgauertsfehbm2tfgezwe2gq/access/wayback/http://revistalogos.policia.edu.co/index.php/rict/article/download/561/pdf_1
5. Hottois, G. (2013). Humanismo; Transhumanismo; Posthumanismo. *Revista Colombiana de Bioética*, 8(2), 167-192. Berreskuratua: <https://revistas.unbosque.edu.co/index.php/RCB/article/download/797/395>
6. Toro Rojas, M. (2019). De las nuevas tecnologías en el mundo globalizado al transhumanismo: dilemas para la identidad. Berreskuratua: <https://repositorio.comillas.edu/xmlui/bitstream/handle/11531/31883/TFG%20TORO%20ROJAS%2C%20MARAA.pdf?sequence=1>

ERANSKINAK

MARKO TEORIKOAREN ZEDARRITZEA

Gure lanerako funtsezkoak diren aurrekariak, oinarri teorikoak eta kontzeptuak biltzen ditu.

KONTZERTU NAGUSIAK:

Transhumanismoa: Mugimendu bat, zeinak esaten duen, gizakia, teknologiaren eraginez, aro berri batera pasa dela.

Teknologia: Gure ingurumen moldatzeko jakintza multzo aplikatua.

Giza esentzia: Kontzeptu filosofiko bat da, zeinek esaten duen, gizakiak norbanako sentitzeko eta jokatzeko ahalmena duen bakoitzaren arima baliatuz

Materialismoa: Filosofiako adar bat zeinek esaten duen gizak ez duela arimarik, materia et sistema elektrikoez, materia multzoa dela.

Identitatea: Pertsona bakoitzak dituen ezaugarriak, besteetatik diferentziazten dutena.